

Birmania, gatazkaz beteriko herrialdea

# Sozialista mistikoa



Ne Win, 1997an, Jakartara egindako bisita batean. • MUCHTAR ZAKARIA / AP

Ne Win hil da aste honetan, gizarte eredu berria abian jartzeko aitzakian, urte luzez Birmanian diktadura gogorra ezarri zuen jenerala

## IDURRE ESKISABEL

Gatazkaz, boterez eta indarkeriaz betetako bizitza luzea izan ondoren, iragan ostegunean hil zen Ne Win Birmaniako diktadore ohia, Rangun hiriburuan. Heriotzaren kausa zehatzak ez dira jakitera eman, baina, pentsatzen da, zahartzaroko ajeen ondorioz hil zela, 91 urte baitzituen denbora luzez Birmanian jaun eta jabe izan zen jeneralak.

Bere etxean hil zen, senidez ingurata, baina, hala ere, ezin esan heriotza baketsua izan zuenik. Izan ere, duela urte eta erditik etxean atxilotuta bizi zen, egun Birmanian agintzen duen Batzorde Militarren aurkako estatu kolpea aurrera eramaten saiatzeagatik: 2001eko martxoan, bere

suhia eta bi biloba espetxeratu zituzten saioa prestatzeagatik —heriotza zigorra ezarri zieten, eta errekurtsio bat argitzeko zain daude orain—, eta jeneral zaharra, etxean egotera zigortu zuten plan horren buru zelako. Beraz, azken unea arte botere nahiari eutsi zion Ne Winek.

### Sagarra eta eguzkia

Nolanahi ere, Birmaniako azken mendeko historia gorabeheratsuan giltzari izan zen zendu berri den jenerala, independentziaren aldeko borrokarren buruetako bat izan baitzen, eta, behin hori lortuta, sozialismorako bide birmaniarra asmatu zuen eta praktikan jartzen saiatu zen gizona.

1911ko maiatzaren 24an jaio zen. Orduan, Erresuma Batuen mende

## Birmaniaren gainbehera ekonomikoa eta giza eskubideen urratze larria egozten zaizkio Ne Wini

zegoen Asiako herrialde hori, eta diktadore ohiaren aita, inperioaren erdi mailako funtzionario bat zen. Jaiotzean, Shu Maung izena jarri zioten gero Ne Win izango zenari, hau da, «begi bakarrek sagarra». Gaztetan, Rangun hiriburura bidali zuten unibertsitateko ikasketak egitera, baina 1931n utzi egin behar izan zituen, azterketak ez zituen gainditu eta.

Orduan lotu zitzaion Birmaniaren independentziaren alde borrokatzen zuten mugimendu abertzaleari, hots, Dobama Asiayone elkarteari. Hala ere, orduan ezagutu zituen Aung San eta U Nu mugimendu abertzalearen sortzaileak, eta, neurri handi batean, Birmaniaren independentzia ahalbidetu zuten gizon biak. Hain zuzen ere, egun militarren aurkako oposizioaren buru den Aung San Suu Kyi, mugimendu independentistaren sortzaile izandako Aung Sanen alaba da.

Behin abertzaletasunari lotuta, mugimendu horren baitan gero eta indartsuago bilakatzen joan zen. 1941ean, Birmaniatik atera zen ezkutuan eta japoniarrek antolatutako entrenamendu militarren eremu batera joan zen. BIA Birmaniaren Independentziarako Armada sortzen lagundu zuen han, eta erakunde berria eratu zela ospatzeko, izena aldatzea erabaki zuen: aurrerantzean ez zen Shu Maung izango, Ne Win baizik; hau da, «eguzkia bezain distiratsua».

Bigarren Mundu Gerra garaian, Japoniak Birmania inbaditu zuen. Erresuma Batuko kolonizatzaileak bota zituztenez, Ne Winek eta beste borrokalari abertzaleek, hasieran, gustura hartu zuten japoniarren etorrera. Laster konturatu ziren, ordea, Japoniaren helburua ez zela Birmaniari independentzia ematea, baizik eta beren herria mendean hartzea. Horregatik, berehala ekin zioten japoniarren aurkako borrokari. Azkenean, 1944ko abuztuan, britainiarrek hartu zuten, berriro ere, agintea. Dena den, deskolonizazio prozesuak abian ziren jada, eta Londresek eta Birmaniako abertzaleek 1948ko urtarrilaren 4an aldarrikatu zen independentzia hitzartu zuten.

Une hartan, etorkizun oparoa igurikatzen zuten birmaniarrek, aberatsa baitzen beren herria, eta beren burua gobernatzeko modua izanda, oraindik eta aberatsago izatea espero zuten. Ez zen halakorik gertatu, berehala piztu baitziren buruzagien arteko botere borrokak. 1947an egin ziren gobernu in-

dependente berria osatzeko hauteskundeak eta Aung San buruzagi abertzaleak irabazi zituen. Baina boterera iritsi aurretik, hil egin zuten eta U Nuk hartu zuen gobernuaren gidaritzza.

### Marxismoa eta budismoa

Birmaniako Armadako jeneral zen orduko Ne Win, eta U Nuk Defentsa ministro izendatu zuen. Baina, nonbait, jenerala ez zegoen ados U Nuren gobernatzeko moduarekin, eta 1958an estatu kolpea eman zuen. Sozialismorako bide birmaniarra mar txan jarri zuen boterera iritsi zenean, hau da, «mistizismo politiko eta ekonomikoan» oinarritutako erregimen berria. Funtsean, pentsaera eta gobernatzeko eredu bitxia: ideologia marxistaren eta budismoaren adar birmaniarren nahasketa berezia egin zuen Ne Winek, halaber, sineskeria kutsu handiak zituena. Esaterako, diru billeteetatik zero zifran amaitzen ziren kopuruak kentzeko agindu zuen, zenbaki horrek zoritxarra ekartzen zuela eta.

Mendebaldeko analisten iduriko, Ne Winen ereduak Birmaniaren gainbehera ekarri zuen: garai bateko aberastasuna galdu eta munduko herrialderik pobreenetako bat bihurtu zen erregimen horren mendean. Era berean, giza eskubideen urratzeak etengabeak izan dira estatu kolpe hura gertatu zenetik, eta errepresioaren ondorioz hildakoak milaka.

Dena den, 1958ko estatu kolpearen ondoren, 1960an, U Nuk berriro hartu zuen boterea hauteskunde bidez, baina 1969an, Ne Winek berriz bota zuen agintetik beste kolpe batekin. Harrezkero, militarrek daude Birmanian agintean eta alderdi bakarrek sistema dago indarrean.

Ofizialki, 1988an utzi zuen boterea Ne Winek, barneko errebolten eta nazioarteko presioaren ondorioz, demokraziarako iraganbidea abian jarri ostean. 1990ean hauteskundeak egin ziren eta Aung San Suu Kyi militarren aurkako oposizioaren buruzagiak irabazi zituen, baina Armadak ez zituen emaitzak onartu eta, egun, oraindik boterean den Batzorde Militarrek hartu zuen agintea. Ne Win ez da inoiz batzorde horretako kide izan, baina iaz estatu kolpea ematen saiatu zen arte, bera izan zen, itzalean, militarren erregimenaren buruetako bat.

Ne Win hil da, baina Birmaniako arazoak ez dira konpondu. Hainbat urtez espetxean atxilotuta izan ostean, urte honen hasieran Aung San Suu Kyi aske laga zuen Batzorde Militarrek nazioarteko presioaren ondorioz. Harrezkero, Armada eta oposizio demokratikoa nola halako negoziatioetan murgilduta daude. Bitartean, ordea, giza eskubideen urratze larriak eguneroko ogia dira Birmanian Mendebaldeko erakundearen arabera.